


1. UNITATEA: Musika-taldeen bilakaera

Musika-talde bat musikari bi edo gehiagok osatzen duten multzoa da. Musikari horiek abeslariak edo musika-tresna joleak izan daitezke. Beraz, horren arabera honako musika-talde motak bereiz ditzakegu:



Ahots musika-taldeak

- **Duetoa** bi abeslariz osatutako taldea da. Normalean batak ahots altua du eta besteak bestea baino baxuagoa. Taldea bi emakumez, bi gizonaz edo gizon eta emakume batez osaturik egon daiteke.
- **Hirukotea** hiru abeslariz osatutako taldea da. Duetoan bezala bi muturreko bi ahots izango ditugu, bata altuena eta bestea baxuena, hirugarren ahotsa besteen artean kokatuko da, erdikoa.
- **Laukotea** lau abeslariz osatutako taldea da. Laukotean bi ahots altu bi ahots baxuen kontra dauzkagu. Talde orekatu eta sinplea da.
- **Boskotea** bost abeslariz osatutako taldea da. Laukotearen ahots bat bikoizten da.
- **Seikotea** sei abeslariz osatutako taldea da. Laukotearen bi ahots bikoizten dira edo hirukotearen hirurak.
- **Zazpikotea** zazpi abeslariz osatutako taldea da. Normalean laukotearen hiru ahots altuenak bikoizten dira.

- **Zortzikotea** zortzi abeslariz osatutako taldea da. Laukote bat da, baina ahots bakoitzak bikoiztuta dago. Talde oso orekatu eta betea da.
- **Ganbera-korua** bederatzi abeslariz edo gehiagoz osatutako taldea da. Normalean musikariak abeslari profesionalak dira, beraz haien interpretazioak kalitate handikoak dira.
- **Koru mixtoa** ganbera-korua baino handiagoa den taldea da. Ahotsek antolaketa berezia dute, abeslarien ahotsaren araberakoa. Abeslarien ahotsak horrela sailkatzen dira, tesituraren arabera:

Emakumeak

Sopranoa (altuena)

Mezzo-sopranoa (erdikoa)


Kontraltoa (baxuena)

Gizonak

Tenorra (altuena)

Baritonoa (erdikoa)

Baxua (baxuena)



- **Orfeoia edo koru handia** ehun pertsona edo gehiago duen abesbatza da. Ganbera-korua ez bezala, abeslari kopurua, interpretazioaren kalitatea baino inportanteagoa da.

Musika-tresnen musika-taldeak

Ganbera-musikan:

- **Duoa** bi musikariz osatutako taldea da. XIX. mendeko musikan, Erromantizismoan, ohikoa zen harizko musika-tresna batek eta pianoak osatzen zuten bikotea edota egurrezko haize-musika trena batek eta pianoak osatutakoa.
- **Hirukotea** hiru musikariz osatutako taldea da. XIX. mendeko musikan hirukote ugari ikusi ahal ditugu, adibidez, klarinetea, fagota eta pianoa. Beste posibilitate bat bada biolinak, biolontxeloak eta pianoak osatzen dutena.
- **Harizko laukotea** ganbera-musikaren barne dauden talde instrumentaletik inportantenetariko bat da. Igurtzitako harizko lau musika-tresnek osatzen dute taldea:

1. Biolina Biola

2. Biolina Biolontxelo

Harizko laukotea Klasizismoan jaio zen, XVIII. mendean, eta garaiko jendeari asko gustatzen zitzaion musika-tresna hauek intentsitate ezberdinak jotzeko aukera ematen zutelako. Haydnek bere garapena lortu zuen 2. biolinaren eta biolaren paperak hobetuz eta horrela erakutsi zuen nola taldearen edozein musika-tresnak espresibitatea eman zezakeen une konkretu batean.

- **Saxofoi laukotea** ganbera-musikaren barne dauden talde instrumentaletik inportantenetariko bat da. Igurtzitako harizko lau musika-tresnek osatzen dute taldea:

Saxo sopranoa	Saxo tenorra
Saxo altua	Saxo baritonoa

Saxofoia XIX. mendeko musika-tresna da, beraz, oso berria da. Adolphe Sax deituriko instrumentu-egile batek asmatu zuen Belgikan eta Frantzia arrakasta handia eduki zuen. Nahiz eta saxoa jazz musikan ospetsu bihurtu, bere jaiotza musika kultuan gertatu zen.

- **Boskotea** bost musikariz osaturiko taldea da. XIX. mendean ohikoa zen harizko laukote bat eta pianoa elkarrekin jotzea edo harizko laukotea eta klarinetea. Boskoteak metalezko haize instrumentuz osaturik egon daiteke ere bai.
- **Seikotearekin** musika-tresnen multzo ezberdinak ikus ditzakegu, adibidez, pianoa gehi haize instrumentuz osatutako taldeak.

Musika-tresnen orkestra:

Orkestra zenbait instrumentistaz osatutako musika-taldea da, instrumentu horien multzoa zenbait sailetan antolatuta daude. Izan ere, orkestraren osaera zehatza konpositoreak partituran zehaztutakoa da.

Ohiko sailak:

Hari-instrumentuak

Haize-instrumentuak: metalezkoak eta egurrezkoak

Perkusioa

Orkestra garai barrokoan sortzen da, XVII. mendean, eta gero eta handiagoa bihurtu egin da, gau egungo orkestra sinfonikoa osatu arte.